

*Done Jakue elizaren portada. Gares  
Iturria: Nafarroako Turismoa  
Egilea: Francis Vaquero*

# M<sub>LH4</sub>

## 2022-2023

# Zuzenketa-koaderno

**Izen-abizenak:**

**Ikastetxea:**

**Ikastaldea/Ikaskela:**

**Herria:**

**Data:**

# Matematika gaitasuna

## Lehen Hezkuntzako 4.a



# Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu, eta irakurritakoari buruzko galderak erantzun behar dituzu.

Galdera mota desberdinak topatuko dituzu. Batzuek lau aukera dituzte erantzuteko; haietan, aukera zuzen bakarra hautatu beharko duzu, eta borobil batekin inguratu haren ondoan dagoen letra. Esate baterako:

**Zenbat da  $2 + 5$ ?**

A. 2

B. 6

C. 7

D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin zure lehenbiziko aukera eta inguratu borobil batekin erantzun zuzen berria, adibidean agertzen den bezala:

**Zenbat da  $2 + 5$ ?**

A. 2

B. 6

C. 7

D. 11

**Eragiketak** ez dira galdera guztietan idatzi behar; hala egiteko esaten dizuten galderetan bakarrik idatzi. Galdera horietan hau bezalako lauki bat ageri da:

**Eragiketak:**

Beste galdera batzuetan eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuekin seinalatzen den tartean:

**Idatzi zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangeluak.**

.....



**Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.**

## 1. BURUZKO KALKULUKO ARIKETA:

1. Irakasleak ozenki 3 buruketa eta 3 eragiketa irakurriko ditu.
2. Hiru aldiz jarraian errepikatuko ditu eta eten txiki bat egingo du errepikapen bakoitzaren ondoren.
3. Paperean EZIN duzu eragiketarik egin; buruz egin behar dituzu.
4. Idatzi emaitza zifrekin honako taula honetan:

A problema	Mendizale talde bat mendira abiatu da. Jateko 36 txokolate ontza hartu dituzte, guztira. Taldeko mendizaleak 9 badira eta eraman dituzten 36 ontzak zati berdinetan banatzen badituzte, zenbat ontza janen du bakoitzak? .... <b>4</b> .... ontza.
B problema	Lauraren aitak 15 kg pisatzen duen motxila darama; amarenak 9 kg ditu eta Laurarenak, 7 kg. Zenbat pisatzen dute hiru motxilek batera? .... <b>31</b> .... kilogramo.
C problema	Lau lagunek aterpean afaldu dute. Afari bakoitzak 12 € balio du. Guztira, zenbat ordaindu dute? ... <b>48</b> ...euro.
D eragiketa	$2500 - 600 + 50 = (2500 \text{ ken } 600 \dots 2 \text{ segundoko etenaldia} \dots \text{ gehi } 50 \text{ berdin} \dots)$ <b>1950</b>
E eragiketa	$7 \times 8 - 8 = (7 \text{ bider } 8 \dots 2 \text{ segundoko etenaldia} \dots \text{ ken } 8 \text{ berdin} \dots)$ <b>48</b>
F eragiketa	$70 - 29 = (70 \text{ ken } 29 \text{ berdin} \dots)$ <b>41</b>

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0 - 3	0,5 puntu erantzun zuzen bakoitzak.

1. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	3
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

# Pirinioak

Jende asko Pirinioetara joaten da mendian ibiltzera, gailurretara igotzera, inguruko herriak bisitatzera...



2. 2021. urtean, hogeita bi mila zazpiehun eta hogeita hamalau erromes pasatu ziren Orreagatik. Nola idazten da erromesen kopuru hori zenbakitan?

- A. 22 634
- B. 22 644
- C. 22 734
- D. 22 744



## 2. galderaren analisia

Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

3. Mendizale elkarte batek 2 irteera antolatu ditu Urkulu mendira. Lehenengo irteeran 37 lagun joan dira, eta, bigarrenengoan, lehenengo irteeran joan diren lagunak halako bi. Guztira, zenbat lagun joan dira?



Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. Hainbat metodo baliozko, adibidez:

$$37 \times 2 = 74$$

$$37 + 74 = 111 \text{ lagun}$$


Guztira, joan dira ...**111**... lagun.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

3. galderaren analisisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

**4. Iratiko oihanean ibilbide asko dago natura gustuko dutenentzat. Irakurri ibilbide hauen gaineko informazioa.**

Mendilatz ibilbidea Azpegiko aterpetik abiatzen da, 6 km eta 620 m ditu eta ibilbide osoa egiteko 1 ordu eta 40 minutu behar dira. Altuerarik txikiena 985 m da eta handiena 1394 m.



Paradisuuak-Erlan ibilbidea Irabiako uharkako parkinetik abiatzen da, 5,43 km ditu eta ibilbide osoa egiteko 55 minutu behar dira. Altuerarik txikiena 865 m da eta handiena 990 m.

**Osatu taula. Idatzi datuak (baita unitatea ere) aurreko testuan agertzen diren bezala.**

IBILBIDEAK	DISTANTZIA	DENBORA	ALTUERARIK HANDIENA
Mendilatz	6 km 620 m	1 ordu eta 40 min/ 1h 40 min	1394 m
Paradisuuak-Erlan	5,43 km	55 min/minutu	990 m

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Hiru datu zuzen baino gutxiago idatzi ditu, modu errazean edo konplexuan.
0,5	Hiru, lau edo bost datu zuzen idatzi ditu, modu errazean edo konplexuan.
1	Datu zuzen guztiak idatzi ditu, modu errazean edo konplexuan.

4. galderaren analisia	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

5. Laurak eta Iñigok informazio-panel karratu bat ikusi dute.


Ikusi duten panelaren perimetroa 2 metrokoa da. Iñigok dio alde batek 40 zentimetro neurtzen duela eta Laurak, berriz, 50 zentimetro.

Nork asmatu du?

.....

Zergatik?

.....



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Laurak erantzun du, baina ez du erantzuna arrazoitu edo bere erantzuna ez da zuzena.
2	<b>Laurak</b> erantzun du eta erantzuna zuzen arrazoitu du. Izan daitezkeen arrazoibideak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- <math>50 + 50 + 50 + 50 = 200 \text{ cm} \rightarrow 2 \text{ m delako}</math></li> <li>- <math>50 \times 4 = 200 \text{ cm} \rightarrow 2 \text{ m delako}</math></li> <li>- <math>2 \text{ m} = 200 \text{ cm} \rightarrow 200 : 4 = 50 \text{ cm delako}</math></li> <li>- .....</li> </ul>

5. galderaren analisia	
Edukiak	Geometria
Prozesu ebaluatuta	Arrazoitzea eta hausnartzea
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

6. Laura eta Iñigo mendi ibilaldi bat egiten ari dira. Seinale hau ikusi dute eta 16:25ak dira. Seinalearen arabera, 2 h 40 min falta zaizkie.

Zer ordutan iritsiko dira Hiriberrira?

- A. 18:05ean.
- B. 18:25ean.
- C. 19:00etan.
- D. 19:05ean.



6. galderaren analisia	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

7. Bidean trafiko-seinale hau aurkitu dute (arriskua dagoela esan nahi du aske dauden animaliak pasatzen direlako).

Erreparatu trafiko-seinaleko hiruki zuriari eta hautatu aukera zuzena.

- A. Aldekidea da eta haren angelu guztiak 60 gradukoak dira.
- B. Isoszelea da eta haren angelu guztiak 60 gradukoak dira.
- C. Aldekidea da eta haren angelu guztiak 90 gradukoak dira.
- D. Isoszelea da eta haren angelu guztiak 90 gradukoak dira.



7. galderaren analisia	
Edukiak	Geometria
Prozesu ebaluatuta	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

8. Hiriberrira iristean garai hau ikusi dute:  
Zer gorputz geometrikoren antza du?

- A. Konoarena.
- B. Zilindroarena.
- C. Kuboarena.
- D. **Prismarena.**



8. galderaren analisia	
Edukiak	Geometria
Prozesu ebaluatuta	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

9. Laura eta Iñigo Belaguako aterpera joan dira gau bat igarotzera. Han aterpea hartu, afaldu eta gosaldu egin dute. Laurak 25 urte ditu, eta Iñigok 24. Laura aterpeko bazkidea da, baina Iñigo EZ. Zenbat ordainduko dute bien artean?

#### ATERPEAREN PREZIOEN TAULA

	HELDUAK		4tik 14 URTE BITARTEKOAK ETA 65 URTETIK GORAKOAK	
	BAZKIDEAK	BAZKIDEAK EZ DIRENAK	BAZKIDEAK	BAZKIDEAK EZ DIRENAK
Ostatua	13 €	18 €	5 €	11 €
Afaria	13 €	14 €	12 €	13 €
Gosaria	7 €	7 €	7 €	7 €

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

**Egin beharreko kalkuluak.** Hainbat metodo baliozko, adibidez:

Laura:  $13 + 13 + 7 = 33$  €.

Iñigo:  $18 + 14 + 7 = 39$  €.

Denera:  $33 + 39 = 72$  €.

Laurak eta Iñigok, guztira, ...**72**... euro ordainduko dituzte lo egin, afaldu eta gosaltzeagatik.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite <b>bat</b> egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

9. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

10. Arratsaldean, Laurak eta Iñigok zerbait eskatu dute meriendatzeko. Tiketean gaztaren prezioa zikinduta geratu da.

Belaguako aterpea		
Zenbat	Produktua	Prezioa
1	Ura	1,50 €
1	Gazta	<del>1,50</del> €
2	Kafea	2,40 €
<b>Guztira</b>		<b>11,90 €</b>

Zenbat ordaindu dute gazta?

Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

**Egin beharreko kalkuluak.** *Hainbat metodo baliozko, adibidez:*

$$1,50 + 2,40 = 3,90$$

$$11,90 - 3,90 = 8 \text{ euro}$$

Gazta ...**8**... euro ordaindu dute.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

10. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

### 11. Osatu testu hau datu hauekin:

150 ml	150 cm	19 litro	19:15	1 kg 900 g	1,90 m
--------	--------	----------	-------	------------	--------

Aterpeko gelan literak daude: luze **...1,90 m...** dira eta zabal **...150 cm...** Paperontziaren edukiera **...19 litro-**koa da. Halaber, bada kutxa zahar bat. Haren pisua **...1 kg 900 g...** da Kutxaren barnean bada **...150 ml-**ko edukiera duen botila txiki bat. Hormako erlojuan ordu hau markatzen du: **...19:15...**



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	4 erantzun zuzen baino gutxiago.
1	4 edo 5 erantzun zuzen (unitatea barne).
2	6 erantzun zuzen (unitatea barne).

11. galderaren analisisa	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatuta	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Ireakia

**12.** Nafarroako mendirik altuena Hiru Erregeen Mahaia da. Altuera jakiteko, hementxe dituzu hiru arrasto hauek:

- Lau zifrako zenbaki bat da.
- Unitateen zifra eragiketa honen emaitza da:  $3 \times 5 - 7$ .
- Milako unitateen zifra unitateen zifraren laurdena da.
- Hamarrekoen zifra milako unitateen zifra baino unitate bat gehiago da.


Idatzi lauki bakoitzean dagokion zifra.

Hauxe da mendiaren altuera: 2 4 3 8 metro.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzena: <b><u>2438</u></b> .

12. galderaren analisisa	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Arrazoitzea eta hausnartzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Ireakia

**13. Begiratu zenbat jende bizi zen Erronkarin, 1900dik 2017ra bitartean.**



Jarri gurutze bat (X) egia (E) edo gezurra (G) den adieraziz.

	E	G
1950. urtean 1970ean baino biztanle gehiago zegoen.	X	
1960. urtean 500 biztanle zeuden zehazki.		X
Gezi gorriak 25 biztanle esan nahi du.		X
Erronkariko biztanleria 1900 eta 1910 artean soilik handitu zen.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	3 erantzun zuzen baino gutxiago.
0,5	3 erantzun zuzen.
1	4 erantzun zuzen.

13. galderaren analisisa	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

14. Mendizale bat Orhi mendia igotzen ari da eta soinean 2 ur-kantinplora daramatza (ikusi irudia). Guztira, zenbat mililitro ur darama?



Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

**Egin beharreko kalkuluak.** *Hainbat metodo baliozko, adibidez:*

$$1 \text{ l } 25 \text{ cl} = 125 \text{ cl}$$

$$125 \text{ cl} = 1250 \text{ ml}$$

$$1250 + 900 = 2150 \text{ ml}$$

Denera ...**2150**... mililitro.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite <b>bat</b> egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.


14. galderaren analisia	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

**15. Emakume mendizaleen talde batek mendi bat igo nahi du.**

**Bidexken planoak begiratzen ari da. Mendizaleek autoa parkinean utzi dute eta abiatu dira.**

**Bidexka hauetatik joanen dira:**

- Lehen bidegurutzera iritsi dira eta eskuineko bidexka hartu dute.
- Bidegurutzera iristean, ezkerreko bidexka hartu dute.
- Hurrengo bidegurutzean eskuinera jo dute eta bidexka horretan segituko dute.
- Hurrengo bidegurutzean beren ezkerrean jo dute eta bidexkan segitu dute.
- Bidegurutzean, tontorreraino segitu dute beren ezkerrean bidexka bat utzita.



**Zein tontorretara iritsi dira?**

- A. A tontorrera.
- B. B tontorrera.
- C. **C tontorrera.**
- D. D tontorrera.

15. galderaren analisisa	
Edukiak	Geometria
Prozesu ebaluatuta	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

# Tomatea

Tomatea gure baratzeetako landare arrunta da. Badira tomate mota bat baino gehiago: *cherrya*, *arrosa*, *kumatoa*... Nekazari batzuek tomateak landatzen dituzte.



**16.** Nekazari batek goizean 270 kg tomate bildu ditu eta arratsaldean, 430 kg. 20 kutxa berdinetan jarri ditu.

Problema osatzeko, zein da galdera zuzenena?


- A. Zenbat tomate jarri ditu kutxa bakoitzean?
- B. **Zenbat kilogramo jarri ditu kutxa bakoitzean?**
- C. Guztira, zenbat tomate bildu ditu?
- D. Goizean zenbat kilogramo bildu ditu?



## 16. galderaren analisia

Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Arrazoitzea eta hausnartzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

**17.** Erreparatu zenbakizko zuzenari eta idatzi hartan zenbat kilogramo bildu diren baratze batean.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzena: <b><u>2000</u></b> .

17. galderaren analisisa	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Irekia

**18.** Erreparatu cherry tomateen irudiarri.



Eragiketa hauetako zeinek adierazten du irudian zenbat tomate dauden?

- A.  $2 \times 12 + 3$
- B.  $3 \times 5 + 11$
- C.  $3 \times 5 + 12$
- D.  $3 \times 5 + 13$

18. galderaren analisisa	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia



- 19.** Nekazariak 282 kilogramo tomate bildu ditu. Poltsatan jarri ditu (bakoitza 6 kilogramokoa da). Poltsa guztiak saldu ditu, bakoitza 4 eurotan. Zenbat diru kobratu du?

Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

**Egin beharreko kalkuluak.** *Hainbat metodo baliozko, adibidez:*

$$282 : 6 = 47$$


$$47 \times 4 = 188 \text{ euro}$$

.....**188**..... euro kobratu ditu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite <b>bat</b> egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

19. galderaren analisisa	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

- 20.** Gure amonak baratzean hiru tomate mota ditu.  
Erreparatu baratzearen planoari.



Tomate-landaketak azalen arabera handienetik txikienera ordenatu nahi baditugu, zein da aukera zuzena?

- A. Tomate arrosa > Cherry tomatea > Kumato tomatea.
- B. Kumato tomatea > Cherry tomatea > Tomate arrosa.
- C. Cherry tomatea > Kumato tomatea > Tomate arrosa.
- D. Kumato tomatea > Tomate arrosa > Cherry tomatea.

<b>20. galderaren analisia</b>	
<b>Edukiak</b>	<i>Geometria</i>
<b>Prozesu ebaluatuta</b>	<i>Aztertzea eta aplikatzea</i>
<b>Puntuaziorik handiena</b>	<i>1</i>
<b>Galderaren zailtasun maila</b>	<i>Erraza</i>
<b>Galdera mota</b>	<i>Itxia</i>

**21.** Bi saski hauetan sei tomate banatzeko bost aukera posible daude. Saski bakar bat ere ez da hutsik geratuko. Idatzi aukera guztiak.



		
1. aukera	<b>1</b>	<b>5</b>
2. aukera	<b>2</b>	<b>4</b>
3. aukera	<b>3</b>	<b>3</b>
4. aukera	<b>4</b>	<b>2</b>
5. aukera	<b>5</b>	<b>1</b>

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
<b>0</b>	Hiru aukera zuzen baino gutxiago idatzi ditu.
<b>0,5</b>	Hiru edo lau aukera zuzen idatzi ditu.
<b>1</b>	Aukera zuzen guztiak idatzi ditu.

21. galderaren analisisa	
<b>Edukiak</b>	<i>Zenbakiak</i>
<b>Prozesu ebaluatuta</b>	<i>Aztertzea eta aplikatzea</i>
<b>Puntuaziorik handiena</b>	<i>1</i>
<b>Galderaren zailtasun maila</b>	<i>Normala</i>
<b>Galdera mota</b>	<i>Irekia</i>